



**Santikaueetan
euskara
Txikurixan**

drogetenitturri

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 170. alea 2009ko uztaila

TXIKURIXA

GIN DALA 90 URTE, UDALAK SANTIXAUETARAKO SUBASTARA ETARATZEN EBAN TABERNIARI TXIKURIXA DEITZEN JAKON.

Plazako bi arbola haundiren artian, alkar jositzako ohol batzuekin atontzen zan. Ipiñi bai eta astietarako egoten zan bertan: Santixauetako lau egunetan, S. Inazio egunian eta honen hurrengo domekan be -baserritarren “Hazi Eguna” modura ezagutzen zan jaixegunian- zabaldu eitzen zan. Gaur egunian haren lekua Orbe Kardinalaren 2 eta 4 zenbakixen arteko leku zabal horrek betetzen dau, San Martinetako TXIKURIXA egoten dan lekutik pare bat metrora.

Kitaiponeko txosna harretan, mostradorra ez beste dana gorde eitzen zan; arda, patxar, gaseosa eta umientzako freskagarriok gabero erretiratzan ziran alboko peorara. Goizaldeko ordu txikixetan itxitxa egoten zan; gaupasa eitxe kontuok gerora etorriko ziran!



Herriko tabernari edo talderen bat kargutzen zan harekin. Aurreko astian urtetzen eban subastara Txikurixorrek eta benetan partikularra zan enkantiori eitxeko modua: poxpolu bat ixotu eta batek pujan diru-kopuru bat

esaten eban. Ixotuta euan bitxartian, kopuruori goitxik jo eta bateron batek aurrekuarena gehitzen bae eban, poxpoluori amatau eta beste bat ixotzen zan.

Total amatau aurretik, enkatiaz arduratzen zanak, abisu modura esaten

ei eban: “Hauxe da mutua!”, gauzia akabatzeaz zegoela eta pujatzaillioi ziztatu guran edo. Poxpolua berez amatatzen zanian, azken prezixua esandakuari emoten jakon urte horretako TXIKURIXAren kargua.

Erretratuetan TXIKURIXA gain, bezeroz beteta eta dindirrixekin apainduta berau, ondoko eraikinak bistaratzen dira: batian plazara sartzeko arkodun atia eta Udaletxe zaharraren hegaltxo bat; bestian eskolia, maixumaistren etxia, Telefonika, Berdura Plazia, “Porruleku” dantzalekua, Udaltzaingoa, Gazteen Informazio Bulegoa eta Jubiletzia izandako etxe multifuntzionala. Zezen Egunian etara zitxuan Ignacio Urretak argazkixok eta 1963ko hau izan zan paraje horretan TXIKURIXA azkenengoz jarri zan urtia.

